

## NATURA

Sekuentzia honetan Mañaria erreka bide-orria egitea izango da helburua. Sekuentzian zehar Mañaria erreka ardatz hartuta Durango inguruko kokapena, mendiak eta ibaiak, klima eta landaredia landuko ditugu eta gure bide orrian txertatzen joango gara.

Guk bide orria deitu dioguna horma irudi erraldoi bat izatea da helburua, non gure natura inguruneke elementuekin osatuko dugun eta baita jardueretan zehar azaltzen den informazio desberdinekin ere. Azken xedea egindako horma irudia aurkeztea izango da. Interesgarria izan daiteke aurkezpen horretara gurasoak gonbidatzea edo beste maila bateko ikasleei aurkeztea adibidez.

### Azoka txikia

Atal hau unitate guztietan edukiko dugu. Bertan, gaiari lotutako materiala etxetik ekarri eta eskolan/ikastolan erakusgai jarriko dugu, ahal baldin bada jendeak ikusteko lekuan (sarreran, pasilloan, ...) Honekin eskola komunitateak zertan ari garen jakingo du zertan ari garen.

Materiala ekartzen dutenean zer eta zergatik ekarri duten azaltzea izan daiteke ariketa posible bat. Ikasleak ahozkoasuna landuko du horrela.

### Mari eta konpainia

Unitate honetako lehen jarduera da, beraz, aurrezagutzak lantzeko erabiliko dugu. Komikiak Mari eta Osaba Bitorren arteko elkarriketa bat hartzen du oinarri eta bertan eskolatik egingo duten irteera bat dute hizpide. Osaba Bitorrek biharko eguraldia aipatzen du, geroago eguraldiarekin lotutako jarduera bat egingo dugu. Horrez gain, laguntza galdera batzuk proposatzen dira. Inportanteena gaiari buruz hitz egitea eta bakoitzaren bizipenak beste ikasleekin konpartitzea izango da.

Jarduera hau egiteko guztiok elkar entzuteko moduan jarriko gara, borobilean adibidez.

### Kokapena

Lehenengo jarduera Durango mapan kokatzea izango da. Jarduera hau ahoz egingo dugu ikasleei hitz egiteko aukera emanaz. Laguntzeko hiru mapa daude goialdean. Ikasleek hitz egingo ez balute irakasleak laguntzeko galderak erabili ditzake, adibidez inguruko herriak zeintzuk diren, zein eskualdetan kokatzen den Durango, zein den herrialdea edo antzekoak. Ikasleek esandakoak arbelean idatzi genitzake, gero ikasleek idatziko duten testuan zer idatzi jakin dezaten.

Behin hau eginda bakarka edo taldeka hitz egindakoaren inguruan testu txiki bat idatziko dute. Ondoren, sekuentzian azaltzen den testua irakurriko dugu, non Durangoren kokapenari buruz informazioa ematen duen.

Lehenengo jarduera honetatik horma irudian zerbait txertatu dezakegu. Izan daiteke testu labur bat, marrazki bat edo imajina dezakegun beste edozer.

### Bertso sorta

Hurrengo jardueran Xabier Amurizaren bertso sorta bat daukagu entzuteko. Bi edo hiru aldiz entzungo ditugu bertsoak eta taldeka banatuta bertsoekin zer esan nahi den azaltzen saiatuko gara.

### Mendiak eta ibaiak

Hurrengo jardueran mendiez eta ibaiez arituko gara. Jarduera honetan naturak gozatzeko ematen digun paradaz hausnartu nahi dugu eta baita arduraz zaintzeko egin beharreko ezere. Jarduera hau hasteko testu labur bat proposatzen dugu, zein Durango eta inguruetako mendiez mintzo den. Horrez gain, beste testu labur batean mendi horietan sortzen diren erreken inguruan arituko gara. Testuak irakurriko ditugu eta talde handian komentatuko ditugu testuek esandakoa. Bertan galdetu dezakegu ea inoiz esandako lekuetan egon diren, ezagutzen zituzten edo beste mendi edo errekarik ezagutzen duten. Atal honetako informazio, marrazki edo argazkiak ere horma irudian txertatu ditzakegu.

### Egun pasa naturan

Behin hau eginda, hurrengo lana gure egun pasa proposamena antolatzea izango da. Plan hau antolatzen laguntzeko informazio iturri ezberdinak aipatzen dira behean, baina bestelakorik ere proposatu dezakete, nola ez!!!

Plan proposamen hau ere taldeka egin dezakegu eta gero taldearen aurrean aurkeztu. Ez ahaztu gure bide orrian ere gure planei lekua egitea!

### Klima

Hurrengo jarduera klimaren inguruan izango da. Komikian Osaba Bittorrek Durangon euri asko egiten duela aipatzen du, hortaz, galdera horretatik abiatu dezakegu gure jarduera. Horrez gain gelan, talde handian, Durango mapa horretan zein klimatan kokatzen dugun ere ariketa interesgarria izan daiteke. Horrela, klima mota ezberdinak lantzeaz gain, gurea zein den asmatzen saiatuko dira ikasleak.

Hurrengo jardueran, Durangoko urteko (2001-2010) datu meteorologikoak ematen dira eta horren arabera aurretik ikusitako mapan kokatzen saiatuko gara. Kokapen hau azaltzeko testu labur bat sortuko dugu.

Meteorologiarekin jarraituta, ikerketa txiki bat egitea proposatzen da hurrengo jardueran. Liburuan azaltzen den bezala, meteorologo bihurtu eta datuak jasotzeari ekingo diogu. Datu hauek ea aurretik ikasitakoarekin bat egiten duten ikusiko dugu gero.

Gure klimaren inguruko informazioa ere horma irudian sartu dezakegu.

### Basoa eta landaredia

Hurrengo jardueran basoa eta landaredia landuko ditugu. Guk testu bat proposatzen dugu, baina testua irakurri aurretik talde handian komenta dezakegu eta zein edo zeintzuk zuhaitz ezagutzen ditugun, non dauden, ea zuhaitz egunean inoiz parte hartu duten eta zein zuhaitz landatu duten.

Gero testua irakurriko dugu. Behin testua irakurrita Ura Agentziaren bideo bat proposatzen da ikasitakoaren inguruan jarduteko.

### Bazenekien?

Hurrengo atalean kuriositate moduan Bizkaiko azken hartzairen inguruko testu bat azaltzen da. Testua irakurrita ea ehiztarien ekintza hau gaur egun balentria izango zen hausnartuko dugu.

### Irteera

Naturaz ari garenez eta bertatik bertara edukiz, ezin ginen sekuentzia honetan irteera bat proposatu gabe geratu. Irteera honek aurretik ikasitakoa geuk ikusteko balioko digu, gure bide orrirako hosto eta bestelakoak biltzeko balioko digu eta baita argazkiak atera, jolastu eta egun eder pasatzeko ere.

### Aurkezpena

Azkenik, sekuentzian zehar ikasitakoa eta egindako aurkeztuko dugu.

### Zer ikasi dut?

Atal denetan azaltzen dira ebaluazio galdera hauek. Ebaluazioa atal ezberdinetan banatuta dago. Alde batetik, beraiek ikasitakoa azaltzen da. Bestetik, taldean edo taldekideengandik ikasitakoa eta azkenik, materiala edo unitatearen ebaluazioa. Ahoz zein idatziz egin daiteke.